

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3690

1804/2026 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen martxoaren 12ko 817/2026 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostu bat lehiaketa-sistemaren bidez hornitzeko (2026ko apirilaren 23ko EHAA, 75. zk., eta 2026ko maiatzaren 4ko BOE, 108. zk.).

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen ekainaren 29ko 1777/2026 Ebazpenaren bidez, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartu zen eta aurkeztutako hautagai bakarra baztertu zen, deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez zuelako betetzen; beraz, ez zen onartutako izangairik egon.

Adierazitako guztiagatik, langileen arloan indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, bat etorri Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutuak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1.e) artikuluan xedatutakoarekin (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Hutsik uztea Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua hornitzeko deialdia Barrualde-Galdakaoko ESlan. Horrek ondorioak izango ditu ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.— Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eta EHAAn argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Usansolo, 2026ko ekainaren 30a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea,
GEMMA FERNÁNDEZ PEÑALBA.